

GOZAMENEN LORATEGIA

Hortzmuga Teatroaren gaueko instalazio artistikoa



Sinopsia:

GOZAMENEN LORATEGIA deritzon instalazio artistikoa zentzumenak zorrotzen eta espazioen nortasuna eraldatzen dituen ikuskizuna da. Argia, soinua eta espazioaren erabilera dira ezaugarri dramaturgiko nagusiak eta, horien bitartez, partaideen pertzepzioa estimulatzea eta emozioak berpiztea bilatzen da.

Proposamenak espazio publiko zehatz bat gauez esku hartzea eta eraldatzea du helburu, ahal bada lorategi bat. Instalazio honetan ageri diren pertsonaiak material birziklatuetatik abiatuta sortu dira. Honela, hari gabeko entzungailuak eta argiztapena erabiliz, partaideak ikus-entzunezko bizipen zirraragarri batean murgilduko dira. Ezohiko bidaia artistiko paregabe honek ez du publikoa epel utziko.

Opera-abelari baten eta soinu-sortzaile baten zuzeneko inprobisazioek balio erantsia ematen diote piezari, instalazioa bera obra bizidun bilakatuz. Ibilaldi musikatu bat eskaintzen dute, non soinua eta musika argiztapenarekin batzen diren, bidaia emozional honetan entzuleei laguntzeko.

Ikuskizun honen inspirazio-iturria El Boscoren “Gozamenen lorategia” koadroa da. Obra konplexu eta enigmatiko honek, esku hartutako espazioaren antzera, haratago begiratzeraz eta lehen begiratuan ikusten eta entzuten ez dena beraurkitzera gonbidatuko zaitu.

Instalazio bakoitza, esku-hartze bakoitza bidaia berri bat da, gozamenez eta bekatuz betea.

*«Artea forma berezi bat da, zeinaren itzalean arima agertzen den»
Hegel*



Instalazioa:

Instalazioa espazio batetik bestera aldatzen da. Elementuen antolaera ad hoc planteatzen da, esku hartu beharreko espazioa aztertu ondoren eta leku bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta. Era honetan, diseinuak inspirazio-iturri den obraren zentzu enigmatiko bera izaten jarraitzen du.

Ikuskizunerako sarbidea mugatua izango da, hau da, edukiera espazioaren tainuaren eta ezaugarrien arabera erabakitzen da. Baina, betiere, parte-hartzaile bakoitzarentzat sarrera eta irteera libre izango da, ahalik eta ikus-entzule gehienei lekua emanaz. Instalazioak talde-bidaia proposatzen du baina, era berean, bizipena ezberdina eta bakarra izango da ikus-entzule bakoitzarentzat. Instalazioa hainbat orduz garatzen da, iluntzetik hasita.

Bizipena entzungailuak jartzearekin hasten da. Entzungailuak modu ordenatuan ematen dira espazioaren sarreran. Publikoa iraupen zehaztugabeko esperientzia intimo batean murgiltzea da helburua, pieza behin eta berriz deskubritu ahal izateko.



Ezaugarri dramaturgikoak

Pertsonaiak

Pertsonaiak eta atrezzoak itsasotik datozen material birziklatuetatik abiatuta sortzen dira. Hori Arte Birziklatua deritzon kontzeptuan oinarritzen da, gure hondakinek ere bigarren aukera bat izateko eskubidea dutela ezartzen duen kontzeptuan, alegia. Arte mota honek papera, kartoia, egurra, kristala, plastikoak, metalak edo kautxua bezalako hondakinak artelanetan eraldatu nahi ditu. Kontzeptua, beraz, materialen birziklatze konbentzionaletik haratago doa. Hain zuzen, gehiegizko kontsumoaren eta kutsaduraren inguruan hausnarke-ta egitera gonbidatzen gaitu eta, era berean, gure ingurunearen balioespenik eza eta gure ekintzen ondorioak erdigunean jartzen dituen mezu kritikoa darama berekin.



Argia

Proposamen honetarako, argiztapena Astera markako foku eta argi-iturrien bidez sortzen da. Marka abangoardista hori teknologia berrien buruan dago, eta haririk gabeko argi-iturri erabat pertsonalizatuak eskaintzen dizkigu.

Oraingoan, argiak orain arte eskurazinak ziren bazterrak argitzen ditu, eta leku bakoitza magiaz beteriko espazio bizidun bilakatzen du.



Soinua

Instalazioa silent system entzungailu-sistema edo sistema isil baten bidez garatzen da, entzuleei esperientzia zeharo murgiltzailea eskaintzeko.

Honela, musika- eta soinu-giroa bolumen naturalean sortzen da, soilik parte hartzen duten ikus-entzuleentzat eskuragarri. Ondorioz, gailu bisual eta erakargarri bat sortzen da hurbiltzen diren pertsonentzat, eta erabat intimoa eta isolatua parte-hartzaileentzat.

Halaber, instalazio honek soinuaren amplifikazioa eta hedapena saihestea du helburu. Era berean, kalitatezko soinu-ikuskitzuna bat birsortzearekin batera, zarata-mailak errespetatu eta kutsadura akustikoa saihesten da, Garaipen Jasangarriko Helburuei jarraituz.

ZUZENEAN: Saioa Bañales opera-ableslariak eta Ibon Aguirre ekoizleak piezaren soinu-espazioa aberasten dute. Zuzeneko ahotsaren, musikaren eta loopingaren arteko nahasketaren bidez, triptikoan zehar soinu-bidaia bat egitea proposatzen da. Gozamenen Lorategian zehar egiteko ibilaldi musikatua da, non ambienteak, droneek eta dantzak instalazioan emozionalki murgiltzen lagunduko dioten publikoari.



Espazioa

Gailu artistiko hau espazioen balioa handitzeko diseinatuta eta pentsatuta dago. Gure inguruneak eskaintzen dizkigun espazio ezagun, enblematiko edo ezezagun eta alternatiboetatik ibiltzera gonbidatzen gaitu. Leku hori misteriotsua izan daiteke edo ez, baina, edonola ere, proposamen honen laguntzaz, Gozamenen Lorategia obraren aurrean jartzen dugun jarrera berezia izango da, bere argiaren eta soinuen bidez.

Proposamenak mundu enigmatiko bat birsortu nahi du, bizipen original baten bidez. Honela, munduko edozein espaziotatik esanahiz beteriko triptiko berezi batera bidaiatu ahal izango da.

Fitxa artistikoa

Zuzeneko ahotsa:

Saioa Bañales.

Zuzeneko soinu-sorkuntza eta soinu-espazioaren ekoizpena:

Ibon Aguirre.

Atrezzo eta pertsonaien sorkuntza:

Iñaki Aguinaga, @landakotxo.

Argiztapena:

Banesa Santos.

Idea eta sorkuntza:

Raúl Cancelo, Ena Fernández.

Eszena-zuzendaritza:

Raúl Cancelo.

Argiztapena:

Banesa Santos.

Ekoizpena:

Nerea Lorente.

Diseinu grafikoa:

Vudumedia.

Fitxa teknikoa

Diziplina:

zuzeneko musika eta argi- eta soinu- instalazio artistikoa; El Boscoren “Gozamenen Lorategia” koadroan oinarritua.

Iraupena:

30 min. inguru, ordutegiak adosteke.

Publikoa:

publiko guztiak.

Hizkuntza:

testurik gabea, giro musikala du; ahots-inprobisazioak eta zuzeneko soinu-sorkuntza.

Esku hartu beharreko espazioaren ezaugarriak:

- +-100m²; kanpokoak, barrukoak edo ez-konbentzionalak izan, naturaz osatuta egon behar dira; parkeak, lorategi-eremuak edo zuhaitz-guneak.
- 3m x 3m-ko neurriak dituen karpa bat jartzeko espazioa barne, ekipo teknikoa instalatzeko.

Korrante-hargunea: entxufe estandar bat, schuko motakoa, karparen kokapen-eremutik gehienez ere 5 metrora.

Ibilgailua espaziora sartzeko baimena; zamalanetarako, muntatzeko eta desmuntatzeko: Iveco carrozada 3801 CWW (7m luzera; 3'20 m garaiera).

Konpainiak ekipo tekniko osoa eramango du.

Hesiak.

Kamerinoa ispiluarekin eta bainuarekin.



GOZAMENEN LORATEGIA bidaia intimoa da, paisaia oniriko batean barrena egindako ibilbidea. Jolasaren eta umore delikatuaren bidez, denbora eta espazioa eraldatzen dituen bizipena. Ametsaren eta errealitatearen arteko muga zeharkatzen duen proposamena.

El Boscoren lanak duen potentzial sinbolikoa deskubritzean datza. Misterioz jositako lorategietatik paseatuz, haren edertasun sotilak norberaren zentzumenekin konektatzeko eta espazioaren nortasuna berreraikitzeke aukera eskaintzen du.

Ikus-entzunezko bidaia murgiltzailea proposatzen dugu, jakin-mina eta harri-dura pizteko. Argia, soinua eta sentsazioetan oinarritutako performancea.

[IKUS BIDEOA](#)

Banaketa:

EUSKADI: HORTZMUGA TEATROA / ÁLEX ANTÚNEZ

+34 946711353 / +34 697894074

info@hortzmuga.com

www.hortzmuga.com

ESTATUKOA: ÍNSULA CULTURAL

Laura:

laura@insulacultural.com

+34 605 49 53 57

Pepe:

Pepe@insulacultural.com

+34 616 81 39 37

NAZIOARTEKOA: ÍNSULA CULTURAL

Violaine:

violaine@insulacultural.com

+34 623 177 236



